

Urriaren 8an hasiko da Zinema Gaur zikloaren III. edizioaren udazkeneko programa

Montehermosoko ohikoaz bestelako zinema zikloa sendotu egin da, eta abenduaren 3ra arte zazpi film eta hiru lantegi eskainiko dira

Montehermoso kulturuneko ohikoaz bestelako zinema zikloak, Zinema Gaur zikloak, urriaren 8an ekingo dio udazkeneko programari, eta abenduaren 3ra arte zazpi film eta hiru lantegi eskainiko ditu.

Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi Estíbaliz Cantok eta zikloaren koordinatzaile Garbiñe Ortega aurkeztu dute prentsaren aurrean.

“Zinema Gaur aukera paregabea da hala ohikoa ez den zinema gustuko dutenentzat nola zinema oro har gustuko dutelarik hori ezagutzeko jakin-mina dutenentzat. Bi edizio besterik egin ez bada ere, zikloa sendotuta dago zinemarkiko grina partekatzeko espazio gisa”.

Ahalegin handia egin izan da udazkeneko programa honetan ikus-entzunezkoen munduaren egile interesgarrietako batzuk biltzeko. Hartara, bi hilabete hauetan, Montehermosoan izango ditugu, besteak beste, Marina Lameiro, Cristóbal Fernández, Diana Toucedo, Ana Schulz, Érik Bullo et Adriana Vila venezuelarra.

El próximo 8 de octubre comienza el programa de otoño de la IIIª edición de Zinema Gaur

El ciclo de cine no convencional de Montehermoso se consolida con 7 proyecciones y tres talleres que durarán hasta el 3 de diciembre

La edición de otoño de la tercera edición de cine no convencional que se celebra en el Centro Cultural Montehermoso, Zinema Gaur, comenzará su programa el próximo 8 de octubre, con 7 proyecciones y tres talleres que durarán hasta el 3 de diciembre.

Lo han presentado en rueda de prensa la concejala de Cultura, Educación y Deporte, Estíbaliz Canto, y la coordinadora del ciclo, Garbiñe Ortega.

“Zinema Gaur es una magnífica oportunidad no solo para aquellos que les gusta el cine no convencional, sino para aquellos que, gustándoles el cine en toda su esencia, tengan también curiosidad por este otro cine. Es un ciclo que, a pesar de llevar dos ediciones está ya consolidado en camino a convertirse en un espacio de encuentro y de pasión por el cine” ha señalado Canto.

Para este programa de otoño, se ha hecho un esfuerzo especial en hacer posible la presencia de algunas de las realizadoras y creadores más interesantes del mundo audiovisual actual. Así, a lo largo de estos dos meses pasarán por Montehermoso Marina Lameiro, Cristóbal Fernández, Diana Toucedo, Ana Schulz, Eric Bullo o la venezolana Adriana Vila, entre otros.